

**UDALAREN KUDEAKETARI, ZERGA-BILKETARI ETA
IKUSKAPENARI BURUZKO 1 ZENBAKIKO ZERGA
ORDENANTZA**

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek bere zergak kudeatu, bildu eta ikuskatzeko bere egintzak ordenantza orokor honetara doituko ditu, eta bertan ezarrita ez dagoen guztian honakook izango dira eraentzaileak: Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko martxoaren 10ko 2/2005 Foru Arau Orokorra, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16eko 9/2005 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-Bilketaren Araudia onetsi duen abenduaren 27ko 215/2005 Foru Dekretua eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Ikuskapen Araudia onetsi duen ekainaren 21eko 99/2005 Foru Dekretua.

2. artikulua.

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatu behar da indarrean jartzen denetik indargabetu edo aldarazi arte.

3. artikulua.

Bizkaiko Lurraldeko Toki Ogasunei buruzko Foru Arauaren babesean ezarririko zergek honako abiaburuok errespetatuko dituzte beti:

- a) Udalerriko lurraldetik kanpo kokatuta dagoen ondasunik, garatzen den jarduerarik, sortzen den etekinik ez egiten den gasturik ez kargapetzea.
- b) Udalerriko lurraldetik kanpo egindako negozio, egintza edo egitaterik ez kargapetzea, ezta lurralde horretan sortu ez diren edo bertan bete behar ez diren ondasunak, eskubideak edo betebeharrak burutu edo eskualdatzea ere.
- c) Pertsonak, merkatugaiak edo zerbitzuak eta kapitalak aske ibiltzeko oztoporik ez ekartzea, ezta Estatuko lurraldearen barruan enpresak edo kapitalak kokatu edo pertsonen egoitza finkatzea era eraginkorrean ukitu ere. Hala ere, Udalerriak bere lurraldearen hirigintza antolamendua bideratu ahal du.

4 artikulua.

- 1. Zergei buruzko arauak Kode Zibileko 3. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoaren arabera interpretatuko dira.
- 2. Zerga-arauegian zehazten ez diren heinean, bertako arauetan erabiltzen diren terminoak euren adiera juridikoan, teknikoan edo ohikoan (kasuan kasukoan) ulertu behar dira.

5. artikulua.

- 1. Artikulu honetan arautzen den itzurpenaren aurkako klausula inguruabar jakin batzuk betetzen dituzten egintza edo negozioen bidez zerga-egitate osoa edo beraren zati bat ekiditen denean edo zerga-oinarria nahiz zerga-zorra gutxitzen denean aplikatu ahal izango da. Hona hemen inguruabar horiek:
 - a) Banaka nahiz taldeka kontuan hartuta, izan den emaitza lortzeko artificio handikoak edo desegokiak izatea.

b) Horien erabilerak zerga-aurrezkia eta ohiko edo norberaren egintzek zein negozioek sortutako ondoreak ez beste ondorio juridiko edo ekonomiko garrantzitsurik ez izatea.

2. Zerga Administrazioak aurreko idatz-zatian arautzen den kasua gertatu dela adierazteko, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko martxoaren 10ko 2/2005 Foru Arau Orokorra, 163. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar da.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioz egiten diren likidazioetan zergak eskatzeko, ohiko edo norberaren egintza zein negozioei dagokien araua aplikatuko da edo lortutako zerga-onurak ezabatuko dira, eta berandutza-interesak likidatuko dira. Ez da zehapenik ezarriko.

6. artikulua.

1. Simulazioa gertatzen den egintzetan edo negozioetan, alderdiek benetan egindako zerga-egitatea kargapetuko da.

2. Simulazioa gertatu dela Zerga Administrazioak adieraziko du likidazio-egintzan; nolana ere, kalifikazio horrek zergen arloan baizik ez ditu izango ondoreak.

3. Simulazioaren ondorioz egin beharreko erregularizazioan berandutza-interesak eskatuko dira, eta bidezkoa denean zehapena ere bai.

II. ZERGA-EGITATEA

7. artikulua.

1. Zerga-egitatea zergari buruzko foru arauak finkatzen duen egitatea da; hori burutzeak zerga-betebehar nagusia sortzen du.

2. Zerga-egitatea foru arau bidez muga daiteke, hain zuzen ere zergapean ez dauden kasuak azalduta.

III. SUBJEKTU PASIBOAK

8. artikulua.

1. Zergapekoak dira zerga-arautegiaren arabera zerga-betebeharrak (materialak nahiz formalak) dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak eta erakundeak.

2. Besteak beste, hauexek dira zergapekoak:

- a) Subjektu pasiboak.
- b) Konturako ordainketak egin behar dituztenak.
- c) Zergen ondorioz norbanakoen artean sortzen diren betebeharrak bete behar dituztenak.
- d) Oinordekoak.
- e) Zergen arloko salbuespenen, itzulketen edo hobarien onuradunak, subjektu pasiboak ez badira.

9. artikulua.

Subjektu pasiboa zerga-betebehar nagusia eta hari datxezkion betebehar formalak zergadun gisa nahiz haren ordezeko gisa bete behar dituen zergapekoa da. Zerga-kuota beste zergapeko bati jasanarazi behar diotenak ere subjektu pasibo izango dira, zergari buruzko foru arauan besterik ezarri ezean.

10. artikulua.

1. Zergaduna zerga-egitatea egiten duen subjektu pasiboa da.
2. Zergadunaren ordezkia da foru arau batean ezarritakoaren arabera zerga-betebehar nagusia eta hari datxezkion betebehar formalak zergadunaren ordezkia bete behar dituen subjektu pasiboa.

Ordezkoak ordaindutako zerga-betebeharren zenbatekoa eskatu ahal izango dio zergadunari, foru arau bidez besterik ezarri ezean.

11. artikulua.

Zergapekoak izango dira (hala ezartzen den foru arauetan) jarauntsi banatugabeak, ondasun erkidegoak eta, nortasun juridikorik ez dutela, ekonomi batasuna edo ondare bereizia osatzen duten eta zergapetu ahal diren gainerako erakundeak.

12. artikulua.

Alkar poderoso edo ordenatzaile ahalaren bidezko jaraunspenetan, administratzaileak sorospidez ordenatzaile ahala erabiltzearen zain dagoen jaraunspen erkidegoaren zorren erantzule subsidiarioa izango da.

13. artikulua.

1. Zerga-egitatean titular bi edo gehiago metatuz gero, berauek solidario gisa behartuta geratuko dira Udalarekin, zerga bakoitzari dagokion Foru Arauak edo Zerga Ordenantzak kontrakoa xedaturik ez badu.

14. artikulua.

Honakoa da subjektu pasiboak egin behar duena:

- a) Zerga-zorra ordaintzea.
- b) Zergei begira eskatzen diren aitorpenak egitea eta aitorpenotan erakunde juridikoentzat ezarritako IFK edo NANA zainpetzea eta berauen fotokopia aurkeztea.
- c) Kontabilitate- eta erregistro-liburuak eta subjektu pasiboak eraman eta gorde behar dituen gainerako agiriak Udal Administrazioaren eskura izatea, Legearen arabera eta beharrezko Ordenantzak kasu bakoitzean ezarritik duenaren arabera.

- d) Ikuskapenak eta egiaztapenak erraztea eta Udal Administrazioari zerga-egitatearekin zerikusia duten datuak, txostenak, aurrekoak eta frogagiriak ematea.
- e) Bere zerga-egoitza aitortzea, ordenantza honen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorririk.

15. artikulua.

Subjektu pasiboaren eta zerga-betebeharraren gainerako elementuen jarrera ezin izango da aldatu norbanakoen egintza edo hitzarmenen bitartez. Horrelako egintza edo hitzarmenek ez diote Administrazioari ondorerik ekarriko, baina beraien ondorio juridiko-pribatuak kontutan hartuko dira.

IV. ZERGAREN ERANTZULEAK

16. artikulua.

1. Foru Arauen bidez, subjektu pasiboak ez eze beste pertsona batzuk izendatuko ahal izango dira zerga zorren sorospidezko erantzule edo erantzule solidario.
2. Kontrako berariazko manurik ez badago, erantzukizuna subsidiarioa izango da.
3. Erantzukizunak zerga-zor osoa iritsiko du, zehapenak izan ezik.
4. Betearazpen-errekargua zazpigarren paragrafoan araupetutako balizkoan bakarrik eskatu ahalko zaio erantzuleari.
5. Nolanahi ere, erantzuleei zerga zorraren ordainketa eskatzeko administrazio ekintza burutu beharko da; aurretik interesatuari entzunaldia eman beharko zaio eta ekintza horretan interesdunaren erantzukizuna eta haren zenbaterainokoa finkatu beharko dira.

6. Egintza hori jakinaraziko zaie eta likidazioaren funtsezko elementuak adieraziko zaizkie, arauz zehazten den eran. Orduan, zordun nagusiaren eskubide guztiak emango zaizkie.
7. Erantzulari sarrera egiteko emango zaion borondatezko epealdia pasatzen bada eta ordainketa egiten ez badu, erantzukizuna berehala zabalduko da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko martxoaren 10ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 56.2,c artikuluan aipaturik dagoen erreka gura, eta zorra betearazpidez eskatuko zaio.
8. Erantzule subsidiarioenganako administrazio-ekintzaren deribaziorako beharrezkoa izango da zor nagusiaren eta gainerako erantzule solidarioen huts egina aurretik adieraztea. Hala ere, legez ezarritako markoaren barruan adierazpen horren aurretik ekarri ahalko dira kautelazko neurriak.
9. Zor beraren erantzule solidario edo subsidiarioak bi edo gehiago badira, zor hori osorik eskatu ahalko zaio haietariko edozeini.

17. artikulua.

Edozein kasutan, solidario gisa zerga-betebeharren erantzuleak honakook izango dira.

- a) Zerga urratzeko kausatzaileak diren edo horretarako lankidetzan jarduten duten pertsona guztiak.
- b) Erakunde juridiko edo ekonomikoen partaide edo titularkideak solidario gisa eta beren partaidetzen proportzioz izango dira erakunde horien zerga-betebeharren erantzuleak.
- c) Desegin edo likidaturiko sozietate edo erakundeen kasuan, berauen zerga-betebehar betegabeak kapitaleko partaideei edo bazkideei eskualdatuko zaizkie. Berauek solidario gisa erantzungo dute, adjudikatu zaien likidazio-kuotaren balioaren mugarainokoaren erantzule izango direlarik.

18. artikulua.

1. Erantzukizun solidarioa eskatzeko prozedura hasiko da zordun nagusiak zerga-zorra ordaintzeko borondatezko epealdiaren barruan ordaintzen ez badu.
2. Erantzukizuna deribatzeko administrazio-egintza eman aurretik, interesatuari entzungo zaio, eta espedienteari erantsiko zaizkio eskatu beharreko erantzukizuna ekartzen duten egitate-jazokizunak metatu direla egiaztatzen duten agiriak, zertarako-eta interesatuak egokiesten dituen alegazioak 10 eguneko epean aurkeztu ahal izateko.
3. Aurreko epea pasatuta, zerga biltzeko organoak, hala denean, erantzukizun solidarioa adierazteko administrazio-egintza emango du, eta erantzuleari edo, erantzuleak bat baino gehiago badira, berauetariko edozeini ordain dezan agindeia egingo dio.
4. Egintza hori erantzule solidarioei jakinaraziko zaie eta honakook adieraziko zaizkie:
 - a) Likidazioaren funtsezko elementuak.
 - b) Erabakiaren testu osoa, erantzukizun solidarioa eta beronen zabalpena adieraziz.
 - c) Erantzule solidarioek bai egindako likidazioaren bai erantzukizunaren zabalpenaren eta oinarriaren aurka egiteko dituzten bideak eta berauek jartzeko epeak eta organoak.
 - d) Zorra ordaindu behar den lekua, epea eta era.

19. artikulua.

1. Erantzukizun subsidiarioa eskatzeko prozedura hasiko da zordun nagusiak eta erantzule solidarioak huts eginda adierazten direnean.
2. Erantzukizuna deribatzeko administrazio-egintza eman aurretik, interesatuari entzungo zaio, eta espedienteari erantsiko zaizkio eskatu beharreko erantzukizuna ekartzen duten egitate-jazokizunak metatu direla egiaztatzen duten agiriak, zertarako-eta interesatuak egokiesten dituen alegazioak 10 eguneko epean aurkeztu ahal izateko.
3. Aurreko epea pasatuta, zerga biltzeko organoak erantzukizuna adierazteko administrazio-egintza emango du, eta berau interesatuari jakinaraziko zaio aurreko artikuluaen laugarren paragrafoan ezarritik dauden beharkizunekin bat etorritik.

20. artikulua.

1. Foru Arauaren edo Legearen bitartez zerga-zorrari loturiko ondasunen eskuratzailleak haien erantzuleak izango dira, zerga-ekintzaren deribazioz, zorrak ordaintzen ez badira, premiamendu-prozedura agortu ostean.
2. Zerga-zorrari loturiko ondasunen kontrako zerga-ekintzaren deribaziorako beharrezkoa izango da arauz jakinarazi beharreko administrazio-egintza. Eskuratzailleak ordaindu, jarduketa aurrera joaten utzi edo egindako likidazioaren kontra edo deribazio horren jatorriaren eta bidezkotasunaren kontra erreklamazioak aurkeztu ahalko ditu.
3. Deribazioak ondasunen lotura adieraztean ezarritako muga iritsiko du soilik.

V. UDALAREN ZERGA-ORDENAN ARITZEKO AHALMENA

21. artikulua.

Zerga-ordenan aritzeko ahalmena izango dute, berau Zuzenbide Pribatuko arauen arabera duten pertsonen gain, adinez txikiek zerga-loturetan baldin eta berauek datozen jarduerak burutu ahal badituzte, antolamendu juridikoaren arabera, gurasoen ahalgoa edo tutoretza burutzen duen pertsonaren laguntzarik gabe.

22. artikulua.

1. Aritzeko ahalmena duen subjektu pasiboak ordezkariaren bitartez jardun ahalko du eta beronekin ulertuko dira ondorengo administrazio-jarduketak, kontrakorik adierazten ez bada.
2. Subjektu pasiboaren izenean errekursoak edo erreklamazioak jartzeko, atzera egiteko, eskubideei uko egiteko eta obligazioak onartu edo aintzatesteko, edo itzultzeak edo diru-itzultzeak eskatzeko, ahal nahikoarekiko ordezkaritza kreditatu beharko da notarioak lege bidez izenpetutako agiri pribatuaren edo publikoaren bitartez edo administrazio-organo eskudunaren aurrera agertuz. Egintza arruntetarako ordezkapena emantzat hartuko da.
3. Ahalik edo nahikoa den ahalik ez izatea ez da oztopo izango den egintza egintzat hartzeko, baldin eta hura aurkezten bada edo akatsa konpontzen bada administrazio-organoak horretarako eman beharko duen hamar eguneko epean.
4. Ekonomi batasuna edo ondare bereizia osatzen duten ondasun-erkidegoen, jaraunspen banatugabeen, elkarteen eta erakundeen

balizkoetan, berauen ordezkari gisa jardungo du hori duenak, baldin eta beraren ordezkari gisa sinesgarrirako kreditatuta badago. Ordezkaririk izendatu ez bada, ordezkari gisa hartuko da itxuraz kudeaketa edo zuzendaritza burutzen duena, eta, horren ezean, erakundea edo erkidegoa osatzen duen edozein kide edo partaidea.

5. Zerga-kudeaketan, gizarte elkarlanaren alorrean telematikaren bitartez edozein agiri aurkezten zaionean Zerga Administrazioari, aurkezleak kasu bakoitzean beharrezkoa den ordezkari gisa izan beharko du. Zerga Administrazioak, edozein momentutan, ordezkari gisa hori kreditatzeko eskatu ahal izango du.

23. artikulua.

Aritzeko ahalmen edo gaitasunik ez duten subjektu pasiboen ordezkari gisa berauen legezko ordezkariak jardungo dute.

VI. ZERGA-EGOITZA

24. artikulua.

Zerga-ondoreetarako egoitza honakoa izango da:

- a) Pertsona fisikoentzat, haien ohiko egoitza.
- b) Pertsona juridikoentzat, berauen sozietate-egoitza, baldin eta bertan benetan zentralizatuta badago sozietatearen administrazioaren kudeaketa eta haien negozioen zuzendaritza. Bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori kokatuta dagoen lekua hartuko da kontutan.

Subjektu pasiboek, zergadunak nahiz ordezkariak direla, beren egoitza aitortu behar diote Zerga Administrazioari.

25. artikulua.

Subjektu pasiboak, egoitzaz aldatuz gero, aldaketa horren berri jakinarazi beharko dio Zerga Administrazioari, horretarako berriazko jakinarazpenaren bitartez. Egoitzaz aldatze horrek ez dio Administrazioari jakinarazpen hori aurkeztu arte ondorerik ekarriko. Administrazioak subjektu pasiboen zerga-egoitza zuzendu ahalko du, zelan-eta behar bezala egiaztatuz.

26. artikulua.

Subjektu pasiboak aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorririk Zerga Administrazioari zerga-egoitzaz aldatu dela jakinarazi ez badio, era berean, jakinarazpen-ondoretarako baliozkotzat hartu ahalko da berak edozein zerga-agiritan aitortutako azkena edo zainpeturikoa.

27. artikulua.

Subjektu pasiboak bere zerga-egoitza aitortu ez badu, horrelakotzat hartuko da, bitartean, titular gisa ageri denaren edozein higiezin edo ekonomi ustiategiaren kokagunekoa.

VII. OINARRIA**28. artikulua.**

Zerga bakoitzari dagokion Ordenantzan ezarriko dira zuzeneko zenbatespeneko, zenbatespen objektiboko edo zeharkako zenbatespeneko araubideen barruan zerga-oinarria zehazteko bide eta metodoak.

29. artikulua.

Zuzeneko zenbatespeneko araubidean zerga-oinarriak zehaztea Administrazioari egokituko zaio eta, zerga-oinarria aplikatzeko, Administrazioak aurkeztutako agiriak edo aitorpena edo egiaztatutako erregistro eta liburuetan zainpeturiko datuak baliatuko ditu.

30. artikulua.

Zenbatespen objektiboko araubidea borondatezko eran erabiliko da subjektu pasiboentzat, zerga bakoitzari dagokion Ordenantzak edo legeak hori zehazten duenean.

31. artikulua.

Baliteke subjektu pasiboek aitorpenik ez aurkeztea edo haiek aurkeztutako aitorpenak nahiko ez izatea. Horrelakoetan, Administrazioak ez du jakiterik izango zerga-oinarriak osorik zenbatesteko behar dituen datuen berririk. Bestetik, gerta daiteke subjektu pasiboek ikuskapen-jarduketari aurka egitea, aitzakia jartzea edo horretarako ezezkoa ematea. Edo baliteke haiek beren kontabilitate-betebeharrak nabarmen ez betetzea. Horrelakoetan, guztietan, oinarriak edo etekinak zeharkako zenbatespeneko araubidean zehaztuko dira eta horretarako honako bideok erabiliko dira:

- a) Eskura daitezkeen eta horretarako garrantzitsuak diren datuak eta aurrekoak aplikatzea.
- b) Dagokien ekonomi arloan normalak diren eta ondasunak eta errentak eta sarrerak, salmentak, kostuak eta etekinak daudela zeharka kreditatzen duten elementuak erabiltzea, zergei begira erkatu behar diren ekoizpen eta famili unitateen dimentsioei jaramon eginez.
- c) Zergadunengan gertatzen diren zeinuak, indizeak edo moduluak baloratzea, antzeko balizkoetan edo baliokideetan izaten diren datu edo aurrekoen arabera.

32. artikulua.

Zerga-oinarriak zeharka zenbatesteko araubidea aplikatu ahal denean:

1. Zergen udal ikuskapenaren emaitza erantsiko zaie subjektu pasiboen zerga-arinketen onuradunen edo atxikitzaileen zerga-egoera erregularizateko hasitako aktei, honakook zentzuz azaltzen dituzten txostenei:

- a) Zeharkako zenbatespeneko araubidea aplikatzea zehazteko kariak.
- b) Subjektu ikuskatuaren derrigorrezko erregistroen kontabilitatearen egoera.
- c) Oinarriak zehazteko aukeratutako bideak frogatzea.
- d) Aurreko kalkuluak eta zenbatespenak oinarri hartuta egindako kalkuluak eta zenbatespenak.

Hasitako aktak eta dagozkien txostenak beraien izaeraren eta motaren arabera ezarritako prozeduraren bitartez tramitatuko dira.

2. Zergen udal ikuskatzaitzak jarduten ez badu, eskuduna den organo kudeatzaileak zerga oinarria eta likidazioa finkatzeko administrazio-egintza emango du, eta berau eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 122. eta 124. artikuluetan aipaturik dauden beharkizunak jakinaraziko dizkio interesatuari, aurreko zenbakiko a), c) eta d) letretan aipaturik dauden datuak adieraziko dizkiolarik. Zeharkako zenbatespeneko araubidea aplikatzeak ez du hori adierazten duen aurretiko administrazio egintzarik eskatuko. Hala ere, kontutan hartuko dira hartatik ateratzen diren egintzen eta likidazioen aurka bidezkoak diren errekursoak eta erreklamazioak.

Jarritako errekursoetan eta erreklamazioetan galde egin daiteke zeharkako zenbatespeneko araubidea aplikatzearen bidezkoatasunaz.

33. artikulua.

Oinarri likidakortzakoa da hala denean zerga bakoitzari buruzko Foru Arauak edo Zerga Ordenantzak ezarritako txikiak zerga-oinarrian egitetik ateratzen dena.

VIII. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

34. artikulua.

Udalak, bere ahalmenak erabiltzeko, Foru Arauen markoan, zerga-onurak eman ahalko ditu bere zergen arloan, bere aurrekontuen pentzuan bereganatuz.

Ondoreotarako Udalak zerga-onurok beraren lurralde mugapean aplikatzea orokorrean zehazten duen erabakia hartuko du. Erabaki hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

35. artikulua.

a) Aldizkako zergen kasuan, eskabidea manuzko zerga-aitorpenak aurkezteko dagokion Ordenantzan ezarritako epean egin beharko da eta zerga-onura emateak zerga-egitatea egiten denetik atzera ekarriko ditu ondoreak.

Eskabidea zerga-aitorpenerako ezarritako epea bukatu ostean egiten bada, onurak ez ditu eskabidea aurkezteko den eguna baino lehen sorturiko kuotak iritsiko.

b) Aldizkakoak ez diren zergen kasuan, eskabidea zerga-aitorpena egiten den aldi berean egin beharko da, edo erreklamazio-epean, egindako likidazioaren Udaletxean.

36. artikulua.

Zerga-onurak organo eskudunak emango ditu, emate hori ekartzen duten inguruabarrak egiaztatu ostean.

IX. ZERGA-ZORRA

37. artikulua.

Zerga-zorra zerga-betebehar nagusiaren edo konturako ordainketak egin beharren ondorioz sartu behar den kuota edo kopurua da.

38. artikulua.

1. Horrez gainera, kasu batzuetan ondokoak ere sartu behar dira zerga-zorreetan:

- a) Berandutza-interesa.
- b) Aitorpena epez kanpo aurkezteagatiko errekarua.
- c) Ordainarazpen-aldiko errekaruak.
- d) Legez eska daitezkeen oinarrien edo kuoten gaineko errekaruak, Foru Ogasunarentzat edo beste entitate publiko batzuentzat direnak.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko martxoaren 10ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren IV. Tituluan xedaturikoaren arabera ezartzen diren zarga-zehapenak ez dira izango zerga-zorren osagai.

X. ZERGA-ZORRA IRAUNGITZEA

39. artikulua.

1. Zerga-zorrak ordainketa, preskripzioa, iraungipena, konpentsazioa edo barkamena dela bide azken daitezke, bai eta legezko xedapenetan ezarritako gainerako bideen bitartez ere.

2. Zerga-zorra ordaintzeak, konpentsatzeak edo barkatzeak ordaindu, konpentsatu edo barkatutako zenbatekoa baizik ez du kitatuko.

40. artikulua.

1. Zerga-zorra likidazioaren bitartez zehazteko administrazioaren ahala sei urteren buruan iraungiko da.

2. Preskripzioa eta iraungipena aldi berean gertatzen dira. Hori dela eta, Administrazioak likidazio egokiaren bitartez zerga-zorra zehazteko duen ahalmena ezin izango da preskripzioa edo iraungipena gertatu ostean erabili.

3. Hurrengo aipatutako administrazioaren ahalak eta zergapekoen eskubideak lau urteren buruan preskribituko dira.

a) Zerga Administrazioak zerga-zorra bidezko likidazioaren bidez zehazteko duen ahalmena.

b) Zerga Administrazioak likidatuta eta autolikidatuta dauden zerga-zorren ordainketa eskatzeko duen ahala.

c) Zerga bakoitzaren arautegian ezarritakoaren ondoriozko itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzulketak eta bermeen kostuen itzulketak eskatu eta eskuratzeko zergapekoek dituzten eskubideak.

41. artikulua.

1. Preskripzio-epea ondoko erregela hauen arabera hasiko da zenbatzen:

a) Zerga-zorra likidazioaren bitartez zehazteko ahalaren preskripzio-epea aitortena edo autolikidazioa aurkezteko arauzko epea amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuko da.

b) Likidatu eta autolikidaturiko zerga-zorrak ordaintzeko eskatzeko ahala zerga-zorra borondatezko aldian ordaintzeko epea buka-tzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuko da, Bizkaiko Lurralde

Historikoko Zergei Buruzko martxoaren 10ko 2/2005 Foru Arau Orokorra artikuluko 68. 2. idatz-zatian xedatutakoa eragotzi gabe. Epez kanpo autolikidaturiko zerga-zorren kasuan, aurkezten diren egunaren biharamunetik aurrera zenbatuko da.

c) Zergapekoek zergaren arautegiaren arabera itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzulketak eta bermeen kostuaren itzulketa eskatzeko eskubidearen preskripzio-epea egun honetatik aurrera zenbatuko da: zergaren arautegiaren arabera itzulketa eskatzeko epea bukatzen den egunaren biharamuna edo, epe hori ezarri ezean, itzulketa eskatu ahal den egunaren biharamuna; bidegabeko sarrera egin den egunaren biharamuna edo autolikidazioa aurkezteko epea bukatzen den egunaren biharamuna; edo inpugnatutako egintza erabat edo partzialki bidegabetzat jotzen duen administrazioaren ebazpena edo epaia irmo bihurtzen den egunaren biharamuna.

d) Zergapekoek zergen arautegien arabera itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzulketak eta bermeen kostuaren itzulketa eskatzeko eskubidearen preskripzio-epea egun honetatik aurrera zenbatuko da: zergaren arautegiaren arabera itzulketa jasotzeko eskubidea onartzen duen erabakia hartzeko ezarritako epea bukatzen den egunaren biharamuna edo bidegabe sartutako kopuruen edo bermeen kostuaren itzulketa jasotzeko eskubidea aintzatesten duen erabakia jakinarazten den egunaren biharamuna.

42. artikulua.

1. Zerga-zorra likidazio egokiaren bitartez zehazteko ahalaren preskripzio-epea kasu hauetan etengo da:

a) Zerga Administrazioak, zergapekoari formalki jakinarazita, zerga-betebeharraren elementu guztiak edo batzuk aintzatesteko, erregularizatzeko, egiaztatzeko, ikuskatzeko, bermatzeko edo likidatzeko ekintza bat egiten duenean.

b) Erreklamazio edo errekurtsoren bat jartzen denean; erreklamazio edo errekurtsoren bidean jarduketak egiten direnean, zergapekoari formalki jakinarazita; Kontzertu Ekonomikoan ezarritako Arbitraje Batzordeari gatazka bat aurkezten zaionean; zigor-jurisdikzioari erruduntasun-testigantza bidaltzen zaionean edo fiskaltzari salaketa aurkezten zaionean; jurisdikzio-organo batek aribideko administrazio-prozedura gelditzeko emandako agindua jasotzen denean.

c) Zergapekoak zerga-zorra likidatzeko edo autolikidatzeko jarduketa sinesgarri bat egiten duenean.

2. Likidatutako eta autolikidatutako zerga-zorrak ordainarazteko ahalaren preskripzio-epea kasu hauetan etengo da:

a) Zerga Administrazioak, zergapekoari formalki jakinarazita, zerga-zorra biltzeko ekintza bat egiten duenean.

b) Erreklamazio edo errekurtsoren bat jartzen denean; erreklamazio edo errekurtsoren izapideetan jarduketak egiten direnean, zergapekoari formalki jakinarazita; Kontzertu Ekonomikoan ezarritako Arbitraje Batzordeari gatazka bat aurkezten zaionean; zordunak konkurtso-adierazpena egiten duenean edo zerga-zorra kobratzeko ekintza zibilak edo penalak egiten direnean; jurisdikzio-organo batek aribideko administrazio-prozedura gelditzeko emandako agindua jasotzen denean.

c) Zergapekoak edo gainontzeko batek, haren kontura eta hura jakinaren gainean dagoela, zerga-zorra aintzatesteko, ordaintzeko edo azkentzeko jarduketa sinesgarri bat egiten duenean.

3. Zergapekoek zerga-arautegietan ezarritakoaren arabera itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzulketak eta bermeen kostuaren itzulketak eskatzeko eskubideen preskripzio-epea kasu hauetan etengo da:

a) Zergapekoak bere autolikidazioa itzultzeko, berresakuratzeko edo zuzentzeko ekintza sinesgarri bat egiten duenean.

b) Zerga Administrazioak eskubideak aintzatesteko, itzultzeko edo berreskuratzeko ekintza bat egiten duenean.

c) Erreklamazio edo errekurtsoren bat jartzen, izapidetzen edo ebazten denean.

4. Zergapekoek zerga-arautegian ezarritakoaren arabera itzulketak, bidegabe sartutako kopuruen itzulketak eta bermeen kostuaren itzulketak eskuratzeko eskubidearen preskripzio-epea kasu hauetan etengo da:

a) Zerga Administrazioak kopuru bat itzultzeko edo berreskuratzeko ekintza bat egiten duenean.

b) Zergapekoak kopuru baten itzulketak edo berreskurapena eskatzeko jarduketa sinesgarri bat egiten duenean.

c) Erreklamazio edo errekurtsoren bat jartzen, izapidetzen edo ebazten denean, edo Kontzertu Ekonomikoan ezarritako Arbitraje Batzordeari gatazka bat aurkezten zaionean.

5. Preskripzio-epea eten ostean, berriz hasiko da konputatzen, Zergei Buruzko martxoaren 10ko 2/2005 Foru Arau Orokorra artikuluko 69. 6. idatz-zatian xedatutakoa, salbuespenarekin.

43. artikulua.

Preskripzioa ofizioz aplikatuko da ordaindu behar duenak bera eskatu edo salbuestea beharrezkoa izango ez delarik.

44. artikulua.

1. Zerga-zorrak beharkizun batzuen bitartezko konpentsazioarengatik iraungi ahalko dira osorik edo partzialki. Beharkizun horiek honakook dira:
 - a) Subjektu pasiboak konpentsazioa zerga-zorra likidatu ostean eskatzea.
 - b) Zorra eta kreditua subjektu pasiboarenak izatea.
 - c) Konpentsatu gura den kredituaren gaineko atxikipenik edo auzirik ez egotea.
2. Zerga-zorrak ofizioz konpentsatu ahalko dira.
3. Konpentsaziotik baztertuta daude endosatu diren kredituak.

45. artikulua.

Zerga-zorrak Batzar Nagusien Foru Arauari jarraiki eta bertan zehazten diren zenbatekoan eta beharkizunekin bakarrik barkatu ahalko dira.

XI. ZERGA-ZORRAREN BERMEA

46. artikulua.

Udal Administrazioak lehentasuna izango du mugaeguneratu bai baina ordaindu ez diren kredituak kobratzeko, beren eskubidea beharrezko Erregistroan bertan Udal Administrazioaren eskubidea agerrarazi baino lehen erregistratuz edo idaztohartuz bereziki bermatutako beste hartzekodun batzuekin batera agertzen bada. Hala ere, kontutan hartuko da ordenantza honen 47. eta 48. artikuluetan xedaturik dagoena.

47. artikulua.

1. Erregistro Publiko batean erregistratu ahal diren ondasunak edo eskubideak edo berauen egiazko edo ustezko zuzeneko produktuak aldizka zergapetzen dituzten zergetan, Udalerriak lehentasuna izango du beste hartzekodun edo eskuratzailen gainean, nahiz eta kobratzeko administrazio-ekintza egikaritzen den egutegiko urteari edo beronen aurre-aurreko urteari dagozkion zor ordaindu gabeak kobratzeko beren eskubideak erregistratu dituzten.

2. Aurreko zenbakian xedaturikoaren ondoretarako, kobratzeko administrazio-ekintza egikaritzat joko da zerga borondatezko epealdian biltzeko prozedura hasten denean.

48. artikulua.

1.- Pertsona fisikoek, sozietateek eta erakunde juridikoek ustiapena eta jarduera ekonomikoak buruzetik datozen zerga zor eta erantzukizunak eskatu ahalko zaizkie haiek edozergatik titulartasunean ordeztzen dituztenei. Hala ere, kontutan hartuko da inbentario-onuran onartutako jaraunspenari begira Kode Zibilean ezarrita dagoena.

2.- Egungo titularra aurretik ados egonik titulartasun hori eskuratu gura duenak eskubidea izango du aurreko paragrafoan aipaturik dauden ustiapena eta jarduera ekonomikoak burutzetik datozen zerga zor eta erantzukizunen ziurtagiria Administrazioari eskatzeko. Ziurtagiria eduki negatiboarekin luzatzen bada edo bi hilabeteko epean ematen ez bada, hura artikulua honetan ezarritako erantzukizunetik salbuetsita geratuko da.

XII. ZERGA URRATZE ETA ZEHAPENAK

49. artikulua.

Zergen arloko arau-haustea dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorra edo besteren batean zein legeren batean edozein mailatako zabarkeriaz tipifikatu eta zehatu diren doluzko edo erruzko ekintzak eta omisioak.

50. artikulua.

1. Zergen arloko arau-haustea zigortzeko diru-zehapenak ezarriko dira; behar denean, diruzkoak ez diren zehapen osagarriak ere ezar daitezke.
2. Diru-zehapenak isun finkoak edo proportziozkoak izan daitezke.

51. artikulua.

Zerga-zehapenak hurrengo artikuluetan zehazten diren irizpideen arabera graduatuko dira, artikuluo aplikagarriak diren neurrian:

52. artikulua.

Zergen arloko arauak behin eta berriro haustea.

Egoera hau gertatu dela ulertuko da arau-hausleari administrazio-bideko ebazpen irmoaren bidez zergen arloko beste arau-hauste batengatik zehapena ezarri bazaio aurreko lau urteetan.

Horren ondoretarako, izaera berekotzat joko dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorra V. titulu III. Kapituluko artikulua berean ezarritako arau-haustea. Hala ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorra 196., 197. eta 198. artikuluetan ezarritako arau-hauste guztiak izaera berekotzat hartuko dira.

Hau gertatzen denean, gutxieneko zehapena %10-30 bitartean gehituko da edo, zehapena proportziozkoa ez bada, %100-300 bitartean.

53. artikulua.

Datuak ezkutatzea

Zerga Administrazioari datuak ezkutu zaizkiola ulertuko da aitorpena aurkezten ez denean, aitorpenean esistitzen ez diren egitateak edo eragiketak edo zenbateko faltsuak agertzen direnean, edo zerga-zorra zehazteko kontu hartu beharreko eragiketa, sarrera, errenta, produktu, ondasun edo bestelako daturen bat ematen ez bada.

Horrelako kasuetan, gutxieneko zehapena %15-150 bitartean gehituko da.

54. artikulua.

Iruzurrez edo bitarteko pertsona baten bidez jardutea. Arau bidez ezarritakoaren arabera, iruzurtzat joko dira:

Kontabilitatean eta zerga-arautegian ezarritako liburuetan edo erregistroetan huts garrantzitsuak agertzea;

Faktura, egiaztagiri edo bestelako dokumentu faltsuak edo desitxuratuak erabiltzea, baldin eta beraien eragina arau bidez ezarritako portzentajearen bestekoa bada, gutxienez;

Bitartekari legez beste pertsona edo erakunde bat erabiltzea, baldin eta arau-hausleak, bere nortasuna ezkutatzeko asmoarekin, zehapena eragin duen arau-haustearen oinarrian dagoen zerga-betebeharra sortu duten ondasunen edo eskubideen titulartasuna, errentak edo ondare irabaziak edo zerga-betebeharra dakarten eragiketak beste baten izenean agertarazi baditu, haren baimenarekin zein baimenik gabe.

Horrelakoetan, gutxienerako zehapena %25-100 bitartean gehituko da.

55. artikulua.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 196-202 bitarteko artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz ezartzen diren diru-zehapenen zenbatekoa portzentaje hauetan murriztuko dira:

- a) Adostasun-akten kasuan eta zergapekoak, ados egonik, zerga-zorra eta zehapena ordaintzen dituen kasuetan, %50.
- b) Kudeaketa-prozeduretan eta zergapekoa bertaratu gabeko erregularizazio-prozeduretan (berariazko adostasuna eskatzen den kasuetan izan ezik) zergapekoa ados dagoela ulertuko da, baldin eta likidazioaren edo zehapenaren aurka ez errekurtsorik ez administrazioarekiko diru-errekamaziorik aurkezten ez bada eta zerga-zorra eta zehapena borondatezko aldian ordaintzen badira.

c) Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 151. artikuluan ezarritako ordaintzeko konpromisodun adostasun-akten kasuan, %70.

56. artikulua.

Zergapekoari aurreko artikuluan xedatutakoaren arabeko murrizketaren zenbatekoa eskatuko zaio ondoko kasuetan:

a) Aurreko a) letran ezarritako kasuetan, erregularizazioaren edo zehapenaren aurka errekurtsoa edo erreklamazioa aurkezten denean edo zerga-zorra edo zehapena borondatezko aldian ordain-tzen ez denean, ordainketa geroratuta edo zatikatuta ez dagoela.

b) Aurreko b) letran ezarritako kasuetan, erregularizazio edo zehapenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezten denean edo Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 225. artikuluan ezarritakoaren arabera erabateko deuseztasuna eskatzen denean.

57. artikulua.

Aurreko idatz-zatian azaldutako inguruabarretako bat gertatzen bada eta ondorioz zehapenaren murrizketa galtzen bada, horren zenbatekoa osoa eskatuko da eta horretarako ez da egongo zergapekoari ordaindu beharreko zehapenaren zenbatekoaren berriz jakinarazi beharrik; nolahi ere, badago salbuespen bat: zehapenaren aurkako errekurtsoa edo erreklamazioa aurkeztea; izan ere, kasu horretan Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 219. artikuluko 3. idatz-zatiko a) letran xedatutakoa aplikatuko da.

58. artikulua.

Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera aplikatutako murrizketaren zenbatekoa eskatzen bada eta murriztutako zehapenaren aurka errekurtsua edo erreklamazioa aurkeztu bada, ez da egongo murrizketaren eskaeraren aurka errekurtsua edo erreklamaziorik aurkeztu beharrik. Kasu honetan, errekurtsuaren xede den zenbatekoa zehapenaren zenbateko osoa izango dela pentsatuko da eta errekurtsuaren ondoriozko etendura eskatutako murrizketari ere aplikatuko zaio.

XIII. ADMINISTRAZIO BIDEZKO EGINTZAK BERRIRO IKUSTEA**59. artikulua.**

Osoko Bilkurari dagokio zuzenbide osoko deuseztasuna adieraztea eta zergak kudeatzeko bidean emandako egintzak berriro ikustea, Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean araupeturiko prozeduraren bitartez eta kasuetan.

60. artikulua.

Egintza edo erreklamazioaren ebazpena eman duen organoak edozein momentutan zuzenduko ditu, bai ofizioz bai interesdunak hala eskatu duelako, oker material, aritmetiko zein egitatezkoak; baldin eta dagozkion ahalen preskripzio-epea edo iraungipen-epea igaro ez bada.

61. artikulua.

Interesatuak Administrazioarekiko auzibide-errekurtsua zuzenean jarri ahalko dute zergen ezarpenaren, aplikazioaren eta eraginkortasunaren arloko edo Zerga Ordenantzak onetsi eta aldarazteari buruzko korporazio honen

erabakiei buruz egindako erreklamazioei amaiera ematen dieten egintzen aurka.

62. artikulua.

1. Tributuak aplikatzeko, zehapenak ezartzeko eta toki ogasunen zuzenbide publikoko gainerako sarrerak bideratzeko egintzen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio delako egintza eman duen organo berari, eta ez da haren aurka egiteko beste modurik izango.

2. Berraztertze errekurtsoa hilabeteko epean aurkeztuko da, egintza berariaz jakinarazi eta hurrengo egunean zenbatzen hasita eta hori berrikusteko eskatu da. Aldizka iraungitzen diren zorrak eta baterako jakinarazpenak direnez, errekurtsoa borondatez ordaintzeko epean edo hura bukatu eta hilabeteko epean aurkeztu ahalko da.

3. Errekurtsoari buruzko ebazpena hiru hilabeteko epearen barruan eman eta jakinaraziko da, errekurtsoa aurkeztu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Epea igaro eta ebazpenik ematen ez bada, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertuko da.

Presuntziozko ezespena gertatu arren, errekurtsoari buruzko ebazpena eman beharra dago.

4. Errekurtsoari buruzko ebazpenak amaiera ematen dio administrazio bideari, eta hortik aurrera interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute zuzenean.

63. artikulua.

Berraztertzeako errekurtsua jartzeak ez du etengo aurkaraturiko egintzaren betearazpena, horrek dakartzan legezko ondorioekin, ezta kuoten edo likidaturiko eskubideen, korrituen eta errekaraguen bilketa ere, behar adinako bermeak ekarri ezik.

Hala ere, berraztertzeako errekurtsua garaiz eta eraz jartzean eten egingo da aurkaraturiko egintzaren betearazpena, inolako bermerik jarri gabe eten ere, baldin eta zorra borondatezko ordainketa-epearen barruan badago edo errekurtsua premiamendu probidentziaren aurka jarri bada. Bi kasuotan, betiere, borondatezko ordainketa-epearen amaieran, zenbatekoa parekoa edo txikiagoa izan beharko du 7.500 euroaren konparatuz.

Tributu zehapenak ezartzeko egintzak automatikoki etengo dira errekurtsua jartzearekin batera.

XIV. ZERGAZ KUDEATZEA**64. artikulua.**

Zergak likidatzeko eta biltzeko kudeatuko dira eta funtziook betetzea legez dagokien funtzionarioek bereiz kudeatuko dituzte. Hala ere, administrazio honen gobernu-organoen antolakuntza eta zuzendaritza arloetako eratzikipenak kontutan hartuko dira.

Alkateari dagokio zergak kudeatzeko beharrezkoak diren administrazio-egintzak ematea. Hala ere, hark hainbat egintza emateko funtzioa eskuordetzea xedatu ahalko du.

65. artikulua.

Zergak kudeatzen honela hasiko dira:

- a) Subjektu pasiboaren aitorten edo ekimenez.
- a) Ofizioz.
- c) Udal Administrazioak ikertzen jardunda.

66. artikulua.

Pertsona naturalek eta juridikoek, publikoek eta pribatuek Udal Administrazioari zergei begira garrantzia duten mota orotako datuak, txostenak eta aurrekoak eman beharko dizkiote, beren beste pertsona batzuekiko ekonomi, lanbide edo finantza harremanetatik atereak.

67. artikulua.

1. Zerga-aitorpentzat hartuko dira agiriak, baldin eta beraien bitartez Udal Administrazioari berez adierazi edo aitortzen bazaio ezen, hala denean, zerga egitate bat osatzen duten elementuak edo inguruabarrak gertatu direla.
2. Beharrezko aitortpena aurkezteak ez dakar berekin kargaren bidezotasuna onartzea edo aintzatestea.
3. Ezein kasutan ez da eskatuko zerga-aitorpenak zinpean egiteko.
4. Zerga-aitorpentzako izango da Udal Administrazioari zerga-egitatea dagoen edo berau osatzen duten agiriak aurkeztea.
5. Derrigorrezkoa izango da aitortpena ordenantza bakoitzean ezarritako epeetan aurkeztea. Hura epeetik kanpo aurkeztea urratze arintzat jo eta horrela zigortuko da.

6. Zerga-aitorpenak aurkezten dituztenek eskubidea izango dute aitorpenon edo berauetan daudenon ziurtagiria luza dakien. Halaber, Udal Administrazioari agiriak aurkeztea eta aurkezpen horren data kreditatzeko, agiriok aurkezten dituztenek beraien kopia zigilatua lortzeko eskubidea izango dute, baldin eta kopia hori originalekin batera ekartzen badute erkatzeko, eta, agiriok espedientean aritu behar ez badute, original horiek itzul dakizkien eskatu ahalko dute.

68. artikulua.

1. Subjektu pasiboek eta zergei begira behartuta dauden gainerakoek Udal Administrazioari kasu bakoitzean dagokien zerga araubideari, sailkapenari edo kalifikazioari buruzko itaunak egin ahalko dizkiote, berauek behar bezala dokumentatuz gero.
2. Itaunak subjektu pasiboek edo, hala denean, zergei begira behartuta daudenek egin eta aurkeztuko dizkiote idazki bidez Udalari. Idazkian, azaldutako kontuari buruz, honakook adieraziko dira behar bezain argi eta behar besteko luzapenez:
 - a) Kasuaren aurrekoak eta inguruabarrak.
 - b) Aplikatu ahal den zerga-arautegiak sorrarazten dituen zalantzak.
 - c) Udal Administrazioari iritzia ematen lagundu ahal dioten gainerako datu eta elementuak.
3. Udal administrazioak idatziz erantzun beharko dizkiete idatziz egindako eskabideei eta horretarako sei hilabeteko epea izango dute. Udal administrazioak erantzunean adierazitako irizpideak aplikatu beharko dizkio eskabidea egin duenari; betiere eskabidea egitatezko egintza burutu baino lehenago egin bada eta ez badira aldarazi ez

inguruabarrak, ez aurrekariak ez eta artikuluko honetako 2. idatz-zatiaren a) eta c) letretan deskribatutako gainerako datuak.

4. Aurreko paragrafoetan xedatuta dagoena kontutan hartuko da, baina Udal Administrazioak ez du erantzun beharrik izango, baldin eta:

a) Itaunaren edukia itaundutako gertaera edo datuen errealitatearekin bat ez badator.

b) Aplikatu ahal den legeria aldarazten bada.

4 Udal administrazioak gaitziritzi egin ahal izango ditu aurrekarietan agertzen baldintzak eta artikuluko honetako 2. idatz-zatiko a) eta c) letretan adierazitakoak betetzen ez dituztenak.

5 Itauna aurkezteak ez ditu zerga-betebeharrak betetzeko indarrean dagoen arautegian ezarritako epeak etengo.

6 Zergei begira behartuta daudenek ezin errekurtsorik jarriko dute manu honetan araupetuta dauden itaunei egindako erantzunaren aurka. Hala ere, errekurtsioa jarri ahalko dute erantzuteko adierazitako irizpideekin bat etorririk emandako administraziozko egintzaren edo egintzen aurka.

69. artikulua.

Udal Administrazioak aitorpenak eskatu ahal ditu, berauek zabaltzea eta berauetan zainpeturiko aurrekoak frogatzea, baita ikusi eta oharrarazitako akatsak konpontzea ere, zerga likidatzeko eta likidazio hori egiaztatzeke behar dituenean.

70. artikulua.

Pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek zein pribatuek, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 34. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako erakundeek euren zerga-betebeharren inguruko denetarikoko datu, txosten, aurrekari eta frogagiriak, zerga-ordainketan eragina izan dezaketenak, eman behar dizkiote Zerga Administrazioari, bai eta beste pertsona batzuekin izan dituzten harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioen ondoriozko guztiak ere.

71. artikulua.

Zerga Administrazioak bere eginkizunak egitean eskuratzen dituen datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira eta hark kudeatzen dituen zergak edo baliabideak aplikatzeko eta bidezko zehapenak ezartzeko soilik erabili ahal izango dira, eta ezin zaizkie laga gainontzekoei, ez jakinarazi, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 94. artikuluan xedean izan ezean.

72. artikulua.

Zergen arloko jarduketak eta prozedurak administrazioaren kabuz edo zergapekoek eskatuta has daitezke, autolikidazioa, aitorpena, eskaera edo zerga-arautegian ezarritako beste bideren bat baliatuz.

73. artikulua.

Zerga-oinarriak zehaztuta, kudeaketak zerga-zorra zehazteko likidazioa eginez jarraituko du. Likidazioak behin-behinekoak edo behin-betikoak izango dira.

74. artikulua.

Zerga-likidazioa ebazpen-egintza da; beraren bidez Zerga Administrazioaren organo eskudunak zerga-zorraren zenbatekoa edo zerga-arautegiaren arabera itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehazten du.

Zerga Administrazioak ez du zertan doitu likidazioak zergapekoek euren autolikidazio, aitorpen, eskaera edo bestelako agirietan adierazitako datuetara.

75. artikulua.

1. Hauexek izango dira zerga-likidazio behin betikoak:

a) Zerga-betebeharraren elementu guztiak egiaztatu eta ikertu ondoko ikuskapen-prozeduretan egiten direnak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 144. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutako kasuetan izan ezik.

b) Zerga-arautegiaren arabera hala direnak.

2. Gainerako kasuetan zerga-likidazioak behin-behinekoak izango dira.

76. artikulua.

Udal Administrazioak agiri bakarrera bildu ahalko du subjektu pasibo beraren gain erortzen diren zergak likidatu eta biltzea, baldin eta likidazioan kontzeptu bakoitzaren oinarriak, tasak edo/eta kuotak eta bilketan kontzeptu bakoitzari dagozkion kuotak bereiz islatzen badira. Berauen batuketaren arabera izango da ordainarazi beharreko kuota bategina.

77. artikulua.

1. Errolda edo Matrikulagai izan ahalko dira zergak baldin eta berauen izaeragatik zerga-egitateek jarraitzen badute.
2. Altak subjektu pasiboaren aitorpenaren edo Administrazioaren ikerketa-ekintzaren bitartez edo ofizioz gertatuko dira eta zergaren ordenantzak hala xedatuta zerga ordaindu beharra sortzen den egunetik ekarriko dute ondorea, preskribitu ezean. Behin betiko sartuko dira hurrengo epealdiko Erroldara edo Matrikulara.
3. Baxak subjektu pasiboek aurkeztu beharko dituzte eta baxok, egiaztatu ostean, beraiek Erroldatik behin betiko ezabatzea ekarriko dute. Aurkeztu diren epealdiaren hurrengo epealditik ekarriko dituzte ondoreak. Hala ere, Ordenantza bakoitzean ezartzen diren salbuespenak kontutan hartuko dira.
4. Zergadunek Udal Administrazioari Erroldan alta, baxa edo aldaketa sorraraz dezaketen aldarazpenen berri jakinarazi beharko diote berauek gertatzen diren egunaren hurrengo hogeita hamar asteguneko epean.
5. Erroldak edo Matrikulak ekitaldi orotan Alkatetzaren eskuetan jarriko dira onesteko, eta, onetsi ostean, jendeari erakutsiko zaizkio hamabost eguneko epean legebidez interesatuak direnek beraiek azter eta erreklamazioak jar ditzaten.
6. Jendeari Erroldak edo Matrikulak erakusteak interesatuen egintza bakoitzerako zainpeturik ageri diren kuoten likidazioak jakinaraztearen ondoreak ekarriko ditu.

7. Jendeari manuz Udaletxeko iragarki-oholean finkatu eta Bizkaiko Jaurerriko Aldizkari Ofizialean txertatu beharko den iragarkian adierazitako lekuan erakutsiko zaizkio haiek. Era berean, iragarkia tirada handieneko egunkarietakoren batean argitaratuko da.

78. artikulua.

1. Jakinarazpenean ondokoak agertu behar dira:

a) Zergapekoaren identifikazioa.

b) Zerga-zorraren zenbatekoa eragin duten elementuak.

c) Jakinarazpenaren motibazioa, baldin eta ez badator bat zergapekoak adierazitako datuekin edo hark egindako arauen aplikazio edo interpretazioarekin; horrez gainera jakinarazpena eragin duten gertaerak eta oinarrizko elementuak adierazi behar dira eta Zuzenbideko oinarriak azaldu.

d) Balia daitezkeen inpugnazio-bideak, inpugnazioak aurkeztu behar diren organoa eta aurkezteko epea.

e) Zerga-zorra ordaindu behar den lekua, epea eta modua.

f) Likidazioa nolakoa den: behin-behinekoa edo behin betikoa.

79. artikulua.

1. Aldizka ordainagiri bidez kobratzen diren zergetan, behin erregistro, errolda edo matrikula egokian alta emateari dagokion likidazioa jakinarazi ondoren, hurrengo likidazioak taldeka jakinarazi ahal izango dira ediktuen bidez (ediktuetan horren berri eman behar da).

2. Zerga-oinarria aitortenaren emaitzakoa baino handiagoa bada, zergadunari jakinarazi behar zaio eta jakinarazpenean aldea zerk eragin duen azaldu behar zaio. Hala ere, aldaketa foru arauak baimendutako

errebalorazio orokorraren ondorioz gertatzen bada edo tokiko zerga-arautegiaren arabera zergaren elementuetan aldaketa orokorrak sartzen badira, ez da egongo jakinarazi beharrik.

3. Zerga Ordenantzetan zehazten diren kasuetan, ez da derrigorrezkoa izango beren-beregi jakinaraztea, betiere Udalak hori ohartarazten badio zergapekoari idatziz.

XV. ZERGAK BILTZEA

80. artikulua.

Zergak borondatez ordaintzeko epealdian edo betearazpen-aldian bilduko dira.

81. artikulua.

Zerga-zorra borondatez ordaintzeko epea zenbatzen hasiko den unea honakoa izango da:

a) Subjektu pasiboari likidazioa zuzenean jakinaraztea, likidazioa banaka egiten denean. Udal Administrazioari egotzi ezin zaizkion kariengatik interesatuari edo beronen ordezkariari hori jakinaraztea ezinezkoa bada, birritan saiatuta, interesatuari edo beronen ordezkariari dei egingo zaio Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren iragarkien bitartez bertaratzuz jakinarazteko. Edozein kasutan, bertaratu edo agertzeko epea 10 egunekoa izango da. Epe hori iragarkia aipaturiko Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da zenbatzen.

Epe hori pasatuta hura agertu ez bada, jakinarazpena lege-ondore guztietarako egintzat joko da, noizdanik-eta agertzeko aipaturiko epearen mugaegunaren biharamunetik.

- b) Zergak biltzeko epearen hasiera, ordainagiriaren bitartez aldizka kobratzeko zergak badira eta berauen ondorengo likidazioak taldeka jakinarazten badira.
- c) Sortzapenaren eguna, autolikidazioen kasuan.

82. artikulua.

1. Zerga-zorrak ordaindu behar dituztenek beren zorrak borondatezko epealdian ordainduko dituzte, gaia araupeturik duten xedapenetan horretarako aipaturiko epeetan.
2. Betearazpen-aldia hasitakoan sortuko da sartu gabe dagoen zorraren zenbatekoaren 100eko 20ko errenergua, baita zor horri dagozkion berandutza-korrituak ere, betearazpen-aldiaren hasieratik sortuak. Hala ere, errenergua 100eko 5ekoa izango da baldin eta sartu gabeko zerga-zorra zordunari jakinarazitako premiamendu-probidentzian aipaturiko arauzko epean ordaintzen bada. Era berean, kasu horretan, betearazpen-aldiaren hasieratik sorturiko berandutza-korrituak eskatuko dira.
3. Korritu-tasa aplikatuko zaion oinarriak ez du premiamendu-errekargua hartuko barnean.
4. Tokiko zergen eta eskubide publikoko gainerako diru-sarreraren ordainarazpenean, interesak Foru Ogasuneko zergen kasu, forma eta kantitate bertsuetan eskatu eta zehaztuko dira.
5. Korrituak honela kalkulatu ahalko dira kasuen arabera:
 - a) Premiaturiko zorrik ordaintzen bada, gero likidatuko dira sortutako korrituak. Beraiek tramitatu eta biltzeko, Udalak egindako

likidazioetarako ordenantza honetan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

- b) Hala ere, balizko horretan, Udalak korrituak zor premiatua ordaintzen den unean kalkulatu eta ordaintzea erabaki ahalko du, zerbitzuari hori komeni bazaio.
 - c) Bahitutako ondasunik edo bermerik betearaziz gero, zorra kitatzeko lortutako likidoa aplikatzean likidatuko dira korrituak, likidoa handiagoa bada.
 - d) Eskudirutan edo kontuetan dirurik bahitzen bada, bahituraren unean kalkulatu edo atxikiko dira korrituak, eskura daitekeen dirua zorra baino handiagoa bada.
6. b), c) eta d) kasuetan ez dira sortutako korrituak berariaz jakinarazi behariko baldin eta zor nagusia jakinaraztean edo ondorengo beste edozein unetan interesatuari honakook jakinarazi bazaizkio: zorraren zenbatekoa; korrituen sortzapena, ordainketarik egin ez bada; eta sortzapen-denboraren zenbaketa.
7. Ez da berandutza-korriturik likidatuko premiamendu-prozeduran, kontzeptu horrengatik emaitzazko kopurua 5.000 pezetakoa edo 35,05 eurokoa baino txikiagoa bada.
8. Xedatutakoa gorabehera, aurretik eskatu barik epetik kanpo egindako sarrerek bidezkoak diren berandutza-korrituak likidatzea ekarriko dute, egindako urratzeengatik eskatu ahal diren zehapenak alde batera utzita. Kasuotan, berandutza-korritua aplikatuz ateratzen dena ezin izango da likidatutako zorraren ehuneko 5ekoa baino txikiagoa izan.

83. artikulua.

1. Zerga-zorra geroratu edo zatikatzeko eskaerak honako izango ditu beharrez:
 - a) Eskatzailearen izena eta abizenak, sozietate-izena eta egoitza.
 - b) Geroratzeko eskatzen den zerga-zorra, Udal Administrazioak ordaintzeko egindako eskaera ekarriz.
 - c) Eskatzen den gerorapen edo zatikapenerako epea edo epeak.
 - d) Beharrezko bermea.

2. Bermea ofizialki erregistratutako Banku edo bankari baten, Aurrezki Kutxa Konfederatu baten, Aurrezkien Posta Kutxa baten edo Kreditu Kooperatiba baten izaera solidarioko abalaren itxurakoa izango da.

3. Ez da zorrak geroratu edo zatikatzeko bermerik eskatuko, baldin eta zorren zenbatekoa 1.000.000 pezetakoa edo 6.010,12 eurokoa baino handiagoa ez bada. Muga horrek subjektu pasibo guztiak ukituko ditu, beraiei eskatu ahal zaizkien zerga-zor guztien bitartez.

Zerga-zorra geroratzeko eskabidean, bermeak aurkeztea eskatzen bada, eskaeragilearen enpresa edo lanbide jardueren etekin garbiaren, pentsioaren edo soldataren urteko zenbatekoa eta haren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak agerrarazi beharko da.

4. Artikulu honetan aipaturik dauden bermeak edo beharkizunak eskabidearekin batera edo emateko erabakia jakinarazten den egunaren oste-osteko hamar eguneko epean ekarri beharko dira.
 - a) Epe hori pasatuta bermerik aurkeztu ez bada, emateko erabakia ondorerik gabe geratuko da.

- b) Abalaren bitartez eraturako bermea denbora zehaztugabekoa izango da eta, edozein kasutan, zerga-zorraren zenbatekoa eta berandutza-korrituena gehi partida bien batuketaren 100eko 25 estaliko du.
- 5. Ordainketarik geroratu eta zatikatzen bada, ezin aplikatuko da ordenantza honen 82.7 artikuluan ezarritako 5.000 pezetako edo 30,05 euroko muga. Hortaz, berandutza-korrituak likidatuko dira beraien zenbatekoa kontutan hartu gabe.
- 6. Zor-zati bakoitzeko, borondatezko epealdia mugaeguneratzen denetik emandako epea mugaeguneratu arte sortutako korrituak zenbatuko dira. Zati bakoitzean sortutako korrituak zati horrekin batera ordaindu beharko dira beharrezko epean. Zatikapena betearazpen-aldian eskatu bada, korrituak kalkulatzeko oinarriak ez du premiamendu-errekargua hartuko barnean.

84. artikulua.

- 1. Zorrek eskudirutan ordaindu beharko dira.
- 2. Eskudirutako ordainketa honako tresnok baliatuz egin ahalko da:
 - a) Legezko aribideko dirua.
 - b) Bankuko edo Aurrezki Kutxako kontu korrontearen kontra igorritako txekea, behar bezala adostu edo ziurtatuta egon beharko duena, igorpendu beraren kontra igortzen ez bada.
 - c) Bankuaren edo Aurrezki Kutxaren transferentzia.
 - d) Postazko igorpena.
 - e) Udalak baimendutako beste batzuk.
- 3. Zergak Udalaren Zergabilketa Bulegoen edo zergak biltzen dituzten erakundeen edo erakunde lankideen bitartez bilduko dira.

85. artikulua.

Zergak Bankuen edo Aurrezki Kutxen Establezimenduetan helbideratuz ordaindu ahalko dira, baldintza batzuetara doitu beharra egongo delarik. Baldintza horiek jarraian zehaztuta daude:

1. Udal Administrazioari eskatzea.
2. Ordainketa-helbideraketek denbora mugagabeen balio izango dute eta zergadunek edozein unetan deuseztatu ahalko dituzte edo beste establezimendu batzuetara eraman. Horren berri jakinarazi beharko diote Udal Administrazioari baliozkotasun-epearen barruan.
3. Udalak une oro ezarriko du helbideraketa-eskabideak onartzeko mugaeguna edo horiek ondorea ekarriko duten epealdia.

86. artikulua.

1. Zorra ordaintzen duenak eskubidea izango du egindako ordainketaren frogagiria eman dakion.
2. Eskudirutako ordainketaren frogagiriak honakook izango dira, kasuen arabera:
 - a) Ordainagiriak.
 - b) Ordainketa jasotzeko baimena duten Erakundeek edo organo eskudunek baliozkotu edo izenpetutako ordain-gutunak.
 - c) Egindako sarrera kreditatzen duten ziurtagiriak.
 - d) Udalak ordainketa-frogagiritasuna berriaz ematen dion beste edozein agiri.

3. Frogagiriek honako inguruabarrok adierazi beharko dituzte gutxienez:
 - a) Zordunaren izena eta abizenak, sozietate-izena, identifikazio fiskaleko zenbakia, herria eta helbidea.
 - b) Kontzeptua, zorraren zenbatekoa eta hura dagokion epealdia.
 - c) Kobratzeko data.
 - d) Hura luzatzen duen organoa, pertsona edo erakundea.

87. artikulua.

1. Premiamendu-prozedura hasiko da sartzekoa borondatezko epealdian sartzeko epeak mugaeguneratuta zorra ordainduta ez badago, eta hurrengo zenbakietan ezartzen denera doituko da.
2. Honakook izango dira administrazio-premiamendu bidezko betearazpena burutzeko kreditua kreditatzen duten tituluak:
 - a) Zerga-biltzaileek luzatutako patente edo ordainagiriko baloreengatiko zordunen harreman ziurtatuak.
 - b) Zorpeko ziurtagiriak gainerako kasuetan.
3. Tituluok zordunen ondasun eta eskubideen kontra jarduteko epailearen epaileak besteko betearazpen-indarra dute.

88. artikulua.

1. Aurreko artikuluko 2 zenbakian aipaturik dauden tituluak luzatuta, diruzainak premiamendu-probidentzia emango du, zordunaren ondasun eta eskubideen gaineko derrigorrezko betearazpena aginduz, irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren 5.3.C artikuluekin bat etorririk.

Betearazpenaren kontrako errekurtsioak ebatziko ditu alkate jaunak edo, beronek eskuordetuta, Gobernu Batzordeak.

2. Premiamendu-bidearen bidezkoatasuna aurkaratzeko honako ziook bakarrik onartu ahalko dira:

a) Zorra oso-osorik azkentzea edo Zerga Administrazioak ordainketa eskatzeko duen ahala preskribitzea.

b) Gerorapena, zatikatzea edo konpentsazioa eskatzea borondatezko aldirian, eta bilketa-prozedura eten dezaketen beste arrazoi batzuk.

c) Likidazioa ez jakinaraztea.

d) Likidazioa deuseztatzea.

e) Zorduna edo premiamendupeko zorra identifikatzea galarazten duen oker edo omisioren bat egotea premiamendu-probidentziaren edukian.

89. artikulua.

1. Premiamendu-prozedura errekurtsio eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak araupetzen dituzten xedapenetan ezarririko eran eta beharkizunekin etengo da.

Administrazioarekiko auzibide-errekurtsioa jartzen denean, administrazio bidez erabakitako etendura mantenduko da, baldin eta nahiko den bermerik badago, harik eta epai-organo-eskudunak etendura horri buruz bidezkoa den erabakia hartu arte.

2. Premiamendu-prozedura berehala etengo da, bermearen beharrik gabe, baldin eta interesatuak zorra zehazteko beraren kontrako oker materiala, aritmetikoa edo egitatezkoa gertatu dela frogatzen bada, baldin eta zor hori sartu, barkatu, konpentsatu, geroratu edo eten bada edo baldin eta Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean araupeturiko konpentsazioa bidezkoa bada zergadunak Administrazioaren kontrako kredituak edukitzeagatik eta kredituon zenbatekoa betearazpen-prozeduran jarraitzen zaiona baino handiagoa izateagatik.

Dena den, Zerga Administrazioak ezin izango du premiamendu-prozeduraren aribidean bahitutako ondasun edo eskubiderik besterendu betearazitako zerga-zorra likidatzeko egintza irmoa izan arte, ezinbesteko balizkoetan eta ondasun galkorren edo balioa berehala galtzeko arriskua duten ondasunen kasuan edo jabeak haiek besterentzea berariaz eskatzen duenean izan ezik.

XVI. IKUSKATZAIETZA

90. artikulua.

1. Honakoa dagokio Zerga Ikuskatzailetzari:
- a) Administrazioak berririk ez duen zerga-egitateak zein diren jakiteko zerga-egitateak ikertzea.
 - b) Zerga-oinarriak behin betiko integratzea, egiaztatzeko eta ikertzeko jarduketan eta beharrezko ikuskapen-jarduketan bitartez.
 - c) Egiaztatzeko eta ikertzeko jarduketetatik ateratzen diren likidazioak proposatzea.
 - d) Bere ekimenez edo Administrazioako gainerako organoek eskatuta honakook egitea: norbanakoei edo beste erakunde batzuei buruz burutu behar diren eta zergak aplikatzea zuzen ekartzen duten ikerketa- eta informazio-jarduketak.

2. Ikuskapen-organoetan lanpostuak betetzen dituzten funtzionarioak agintaritzaren agentetzat hartuko dira, dagozkien ikuskapen-funtzioak burutzen badituzte. Agintari publikoek ikuskatzeko behar besteko babes eta laguntza emango dute.

91. artikulua.

1. Zergen ikuskatzaileak finketan, negozio-lokaletan eta jarduerak edo ustiapenak garatzen diren gainerako establezimenduetan edo lekuetan sartu ahalko dira, baldin eta jarduera edo ustiapenok kargapetuta badaude, zertarako-eta egiaztatu eta ikertzeko.
2. Finkaren edo eraikinaren jabeak edo bertan bizi denak edo hura jagoten duen pertsonak ikuskatzaileei sartzan uzten ez badie, berauek ez dute ikuskatzerik izango Alkatetzaren aurretiko idatzizko baimenik gabe. Espainiarren edo atzerritarren egoitza partikularraren kasuan, epailearen agindu egokia lortu beharko dute ikuskatzeko.
3. Zerga-egitatearekin zerikusia duten subjektu pasiboaren liburuak eta dokumentazioa (euskarri magnetikoko artxiboak eta programa informatikoak barnean sartuta) zergen ikuskatzaileak aztertu beharko ditu haren egoitzan, lokalean, idazmahaietan, langelan edo bulegoan, haren edo beronek izendatutako pertsonaren aurrean.
4. Zerga-arauek ezarritako erregistroen eta agirien edo arauok eskatutako frogagirien kasuan, haiek Udal Administrazioaren bulegoetan aurkeztea eskatu ahalko da, zertarako-eta haiek aztertzeko.
5. Aurreko paragrafoetan aipaturiko agiriak eta zerga-zorra zehazteko garrantzitsuak diren beste froga-elementuak gordetzeko, berauek ez

desagertzeko, ez hondatzeko eta ez aldatzeko beharrezkotzat jotzen diren neurriak hartu ahalko dira. Neurriek lortu gura den helburuaren proportziozkoak izan beharko dute. Ezein kasutan ez da nekez konpondu ahal den edo ezin konpon daitekeen kaltea egin ahal duen neurririk hartuko. Neurriak honakook izan ahalko dira, hala denean: salgaiak edo kargapeko produktuak eta artxiboak, lokalak edo datuak tratatzeko ekipo elektronikoak prezintatzea, gordailatzea edo bahitzea, baldin eta beraiek behar den informazioa ustez badute.

Hala hartutako kautelazko neurriak kenduko dira baldin eta beraiek hartzea justifikatu duten inguruabarrak desagertzen badira.

92. artikulua.

1. Zergen Ikuskatzaitzaren aurrera agertu behar dutenek eskubidea dute egiaztapen- eta ikerketa-jarduketan hasieran berauen izaera eta alkantzua eta jarduketotako beren eskubideak eta betebeharrak jakinaraz diezazkieten.

2. Zergen Ikuskatzaitzak burututako izaera partzialeko egiaztapen- eta ikerketa-jarduketa jasaten dabilenak Zerga Administrazioari eskatu ahalko dio egiaztapen hori jarduketak ukituriko zergari eta ekitaldiari begira orokorra izatea, baina eskabide horrek ez ditu aribideko jarduketak etengo.

Eskabidea hamabost eguneko epean aurkeztu beharko da. Epe hori ikuskapen-jarduketa partzialen hasieraren berri jakinarazten denean hasiko da zenbatzen.

Zerga Administrazioak eskabidea aurkezten denetik sei hilabeteko epean hasi beharko du egiaztapen orokorra.

93. artikulua.

1. Ikuskapen-egintzak garatu ahalko diren lekuak honakook izango dira bereizi gabe:
 - a) Subjektu pasiboaren zerga-egoitza edo hark horretarako izendatutako ordezkariarena.
 - b) Zergapetutako jarduerak osorik edo partzialki egiten diren lekua.
 - c) Zerga-egitatearen frogaren bat (partziala bederen) dagoen lekua.
- a) 95,2 artikuluan aipaturik dauden bulego publikoetan, baldin eta ikuskatu behar diren elementuak tokiotan aztertu ahal badira.

94. artikulua.

Zerga Ikuskatzaitzaren jarduketak, subjektu pasiboentzat ekonomi garrantzirik badute, aurretiko edo behin-betiko aktetan, jakinarazpenetan eta dilijentzietan dokumentatuko dira.

95. artikulua.

1. Honakook zainpetuko dira jarduketan emaitza dokumentatzen duten Ikuskatzaitzaren aktetan:
 - a) Akta luzatzen zaion pertsonaren izena eta abizenak eta hura agertzen den izaera edo ordezkarietasuna.
 - b) Zerga-egitatearen eta beronen subjektu pasiboarenganako eratxikipenaren funtsezko elementuak.
 - c) Ikuskatzaileek bidezkotzat jotzen duen zerga-egoeren arauketa.
 - d) Subjektu pasiboaren edo zerga-erantzulearen adostasuna edo adostasunik eza.

2. Ikuskatzaileek erabaki ahalko dute aurreko paragrafoan aipaturiko aktak subjektu pasiboaren bulegoan, lokalean edo negozioan, langelan edo etxebizitzan edo Udal Administrazioaren bulegoetan luza daitezzen.
3. Zerga Ikuskatzailetzak luzatutako aktak eta dilijentziak agiri publikoak dira eta beraiek egitea ekartzen duten egitateak frogatzen dituzte, kontrakoa egiaztatzen ez bada.
4. Subjektu pasiboak akta izenpetzen ez badu edo akta izenpetu bai baina bertan zainpetutako inguruabarrekiko bere adostasunik agertzen ez badu, agiri horrek administrazio-espeditate egokia hastea zehaztuko du.
5. Ez da beharrezkoa izango subjektu pasiboak edo beronen ordezkariak ikuskapen-akta baimentzea, baldin eta aurretik zerga-egitatearen frogarik eratu bada. Hala ere, kasu horretan, hari edo beronen ordezkariari jakinarazi beharko zaio administrazio-jarduketan hasieraren berri, eta hamabost eguneko epea emango zaio aurretik eraturako frogaren horri begirako oker posibleak edo zehaztasunik eza alegazio bezala azaldu ahal izan ditzan.
6. Beharrezko eskuespenik gabeko pertsonen izenpeturiko aktak artikuluko honen 4. paragrafoaren arabera tramitatuko dira.

96. artikulua.

1. Aktak aurretikoak edo behin-betikoak izan daitezke.
Aurretiko aktak gero egin ahal diren behin-betiko likidazioen konturako behin-behineko likidazioei bide ematen dietenak dira.

2. Aurretiko akta bat hastea bidezkoa izango da, baldin eta:
 - a) Zerga-egitatea beharrezko egiaztapen- eta ikerketa-jarduketan ondoreetarako bereizi ahal bada edo bere lurralde zatikapenarengatik gauzatzen den lekuetan berezi behar bada.
 - b) Ikuskatzaitzak zerga egitateak edo oinarriak azkenik egiaztatu edo ikertu ahal izan baditu eta jarduketak etetea beharrezkoa bada, behin-behineko likidazioa posible izaki.
 - c) Egiaztapen laburturik burutzen bada eta Ikuskatzaitzaren iritziz behin-betiko likidaziorik egin ahal bada.
 - d) Aurretik azaldutako balizkoen antzekotzako beste balizkorik gertatuz gero.
3. Ikuskatzaitzak, aurretiko aktarik luzatzekotan, berariaz luzatu beharko du, honakook adieraziz: aurretiko akta hori hastea ekarri duten inguruabarrak eta zerga-egitatearen edo ikuskatzaileek egiaztatu duten beronen balorazioaren elementuak.
4. Aurretiko aktak beraien izaeraren arabera ezarritako prozeduraren bitartez tramitatuko dira.
5. Aurretiko aktaren bitartez egiaztaturiko egitateak ezin berriro egiaztatuko dira.

97. artikulua.

1. Zergen Ikuskatzaitzak egiaztatzeke eta ikertzeko buruturiko jarduketak eta berauetatik datozen likidazio-jarduketak hamabi hilabeteko epean burutu beharko dira gehienez, epe hori jarduketa horien hasieraren berri ematen den egunean zenbatzen hasiko delarik. Hala ere, epe hori beste hamabi hilabete luzatu ahalko da

arauz zehazten diren alkantzuarekin eta beharkizunekin, baldin eta jarduketetan honako inguruabarrotarikoren bat bateratzen bada:

- a) Bereziki zailak diren jarduketak izatea. Bereziki, inguruabar hori gertatuko dela egiaztatzeko honakook ikusi beharko dira: pertsonaren edo erakundearen eragiketa kopurua, haren jarduerak geografikoki sakabanatzea edo hark zergak talde sendotuen modura edo nazioarteko zerga-gardentasunaren araubidean ordaintzea.
 - b) Jarduketetan zehar honakoa jakitea: ezen ikuskatuak Zerga Administrazioari egiten duen enpresa edo lanbide jardueraren bat ezkutatu diola.
2. Aurreko paragrafoan ezarritako epearen ondoreetarako, ez dira zenbatuko ikuskatuari egotzi ahal zaizkion luzapenak, ezta arauz espezifikatzen diren etenaldi justifikatuak ere.
 3. Ikuskatzeko jarduketak sei hilabetean justifikatu barik eteten badira zergei begira behartuta dagoenari egotzi ezin zaizkion kariengatik, edo 1. paragrafoan aipaturiko epea betetzen ez bada, ez da etentzat joko jarduketa horien ondoriozko preskripzioa.
 4. Aurreko paragrafoetako ondoreetarako, egiaztapen eta ikerketako jarduketak eta likidaziokoak haien ondoriozko administrazio-egintza ematen den egunean amaitutzat joko dira.

XVII. AZKEN XEDAPENA

Kudeaketari, Zerga-bilketari eta Ikuskapenari buruzko 1 zenbakiko Zerga Ordenantza Orokorra aldaraztea behin-behinean onetsi zen 2008ko irailaren 25ean, jendaurrean egon den bitartean inork ez duenez erreklamaziorik aurkeztu behin betiko onetsitzakotzat hartu da behin-betiko eta 2009ko

urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.